



ELGOIBARKO UDALA

GOBIERNO INDIANARITZA
GOBIERNO VASCO
INSTRUMENTO LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

2017 MAI. 31 12.00 2017



13.54

SARRERA IRTEERA

Alkatetza

EAE-KO LURRALDE
ANTOLAMENDUAREN GIDALERROEI
BURUZKO AURRERAKINAREN
IRADOKIZUNEN INGURUKO TXOSTENA

INFORME DE SUGERENCIAS AL
AVANCE DE LA REVISIÓN DE LAS
DIRECTRICES DE ORDENACIÓN
TERRITORIAL DE LA C.A.P.V.

2015eko Euskal Hiria Kongresuan, "EAEko lurralde antolamenduaren gidalerroen Berrikusketan" parte hartzeko prozesuari ekin zitzaion, eta 2016ko Euskal Hiria Kongresuan Aurrerakina aurkeztu zen. Aurrerakinaren edukia, bestalde, webgunean eskura daiteke.

En Euskal Hiria Kongresua 2015 se dio inicio al proceso de participación a la "Revisión de las directrices de ordenación territorial de la CAPV", y en Euskal Hiria Kongresua 2016 se presentó el Avance cuyo contenido se encuentra disponible en la web.

LAGak berrikusteko prozesuaren baitan, eta Aurrerakinaren bertsioa ageri deneko dokumentazioa aztertutik, Udal honek ondorengo iradokizuna aurkeztu nahi du, beste erakunde batzuek aurkeztu dituzten iradokizunak kontuan izan gabe:

Dentro del proceso de revisión de las D.O.T. y analizada la documentación de la que consta la versión de Avance, este Ayuntamiento quiere presentar la siguiente sugerencia independientemente de otras presentadas por otras entidades:

1.- Mugikortasuna:

1.- Movilidad:

1.1.- Trenbideen, **portuen eta aireportuen mugikortasunari** buruzko 9.4. atalean, ondorengo aipatzen da:

1.1.- Según se recoge en el apartado 9.4. dedicado a la **movilidad ferroviaria, portuaria y aeroportuaria**, se dice que:

"Euskadik baldintza ezin hobeak ditu trenbide sistemetan oinarritzen diren mugikortasun iraunkorreko sistemak garatzeko; hainbat hirigunetan eta ardatz linealetan barrena pilatzen den biztanleriaren dentsitatea handia delako. Hortaz, garraio kolektiboko sistema sendo bat eratu behar da, trenbide sistemak oinarritzat hartuta.

"El País Vasco presenta condiciones óptimas para desarrollar sistemas de movilidad sostenible apoyados en sistemas ferroviarios debido a su elevada densidad de población concentrada en diversos centros urbanos y a lo largo de ejes lineales. Se debe, pues, configurar un potente sistema de transporte colectivo apoyado en sistemas ferroviarios.

Aldiriko sistemak ekarpen garrantzitsua dakarkite mugikortasun iraunkorrari; hiri ertainen dinamizazioari, garapen metropolitanoaren dinamikak metatzen dituzten guneak baitira, eta gure lurraldearen iraunkortasunari."

Los sistemas de cercanías constituyen una importante contribución a la movilidad sostenible a la dinamización de las ciudades medias como ámbitos de captación de dinámicas de desarrollo metropolitano y a la sostenibilidad de nuestro territorio."

Aurreko agirietan, eta indarrean dauden LAGetan ere bai, Eibarko Eremu Funtzionalaren baitan, Ermua-Eibar-Elgoibar-Mendaro-Deba aldiriko tren zerbitzuaren oinarritzko ardatza zehazten zen; hain zuzen ere, LAGen aurrerakinaren bertsioan, Ermua-Eibar-Elgoibarrera mugatzen dena.

Dentro del Área Funcional de Eibar (Debabarrena) se definía en documentos previos, así como en las DOT vigentes, el eje básico de servicio ferroviario de cercanías Ermua-Eibar-Elgoibar-Mendaro-Deba, eje que en la versión de avance de las DOT se limita a Ermua-Eibar-Elgoibar.



Zerbitzuaren ardatz hau beharrezkotzat jotzen da eremu funtzional honen baitan aurkitzen diren udalerrien arteko mugikortasuna hobetzeko. Bestalde, egiaz, zerbitzu handiagoa bultzatzeko eta sendotzeko premia dago. Horrela jasotzen da, "Debabarreneko Garapen Iraunkorrerako Estrategia 2020" delakoan; non bertan aipatzen diren zazpi proiektu estrategikoen artean "Igo mugikortasunaren trenera" izaneko proiektua proposatzen baita. Hala, proiektu honetan, trena eskualdearen mugikortasunerako oinarritzko elementutzat hartzen da; hartara, gaur egun Euskotrenek duen sarean oinarritzen den hiri zerbitzu metropolitanoa osatu, eta trenen maiztasuna gehitzeko (10-15 min.)

1.2.- Mugikortasun multimodalari buruzko 9.1. atalean jasotzen denaren arabera, ondorengo lurraldearen gidalerro gisa identifikatzen da:

"Ekobulebarrak egituratzerako orduan, garraio kolektiboarentzako, oinezkoentzako eta bizikletentzako plataformak izan beharko dira kontuan, hiriaren atalak, bilakaera berriak eta zentraltasun eremuak artikulatzen dituzten egiturak baitira".

Era beran, bide **mugikortasunari** buruzko 9.3. atalean, ondorengo lurraldearen gidalerro gisa identifikatzen da:

"Eremu Funtzionalen interkonexioak".

Horretarako, kontuan izan da Eibarko Eremu Funtzionalak (Debabarrena), Euskadiko lurraldean duen kokapen estrategikoa.

- zentraltasun eremua.

- euskal hiriburuen nukleo anitzeko sistemaren oinarritzko interkonexiorako sare bat egotea (AP-8).

Este eje de servicio se considera necesario para la mejora de la movilidad interurbana de los municipios que conviven dentro de esta área funcional siendo una realidad la necesidad de impulso y consolidación con un mayor servicio. Así se recoge en la **"Estrategia de Desarrollo Sostenible de Debabarrena 2020"** en la que se plantea como uno de sus siete proyectos estratégicos el proyecto "Subir al tren de la movilidad sostenible". En este proyecto se plantea el ferrocarril como elemento fundamental en la movilidad comarcal, avanzando hacia la configuración de un servicio urbano-metropolitano basado en la red de Euskotren existente y en un incremento de la frecuencia de trenes (10-15 min.).

1.2.- Según se recoge en el apartado 9.1. dedicado a la **movilidad multimodal**, se identifica como una directriz territorial:

"Incluir, en el desarrollo de ecobulevares, plataformas reservadas para el transporte colectivo y para peatones y bicicletas, como estructuras para articular las diferentes piezas urbanas y localizar nuevos desarrollos y espacios de centralidad".

A su vez, en el apartado 9.3. dedicado a la **movilidad viaria**, se identifica como una directriz territorial:

"Interconexiones de las Áreas Funcionales".

Teniendo en cuenta la ubicación estratégica del Área Funcional de Eibar (Debabarrena) en el conjunto del territorio del País Vasco:

-espacio de centralidad.

-la existencia de una red de interconexión básica del sistema polinuclear vasco de capitales (AP-8).



Alkatetza

- eremu funtzionalen burutzak elkarren artean lotzeko sareak egotea.

-la existencia de redes de interconexión de las cabeceras de las áreas funcionales.

Hala, Eremu Funtzional hau egokia dela iradokitzen da, alde batetik, mugikortasun multimodalaren garraio anitzeko konexio gune izateko, eta bestetik, nukleo anitzeko oinarritzko sarearen bidez (AP-8), beste eremu funtzional batzuekin lotzeko.

Se sugiere la idoneidad de este Área Funcional como punto de conexión intermodal de movilidad multimodal y de conexión de otras áreas funcionales con la red básica polinuclear (AP-8).

Ikuspegi horretatik begiratuta, azpimarragarria da, Elgoibarko udalerriak duen kokapen estrategikoa; izan ere, bertan elkartzen dira AP-8rako sarbidea, Euskotrenen sarea eta beste eremu funtzional batzuetako burutzekiko interkonexioak: hala nola, Azpeitiko Eremu Funtzionala (Urola Kosta), GI-2634, eta Gernika-Markinako Eremu Funtzionala, GI/BI-2636. Gure udal barrutia ezagutzen dugun aldetik, iradokizun hau proposatzen dugu, alde batetik, fisikoki egin daitekeela uste dugulako, eta bestetik, lurraldean sustatu nahi diren beste garraibide era batzuk bultzatzen dituelako, hala nola, bizikletentzako bidea, ekobulebarrak eta garraio publikoa (errepide eta trenbide bidezkoa).

Desde esa perspectiva, llamar la atención sobre la ubicación estratégica del municipio de Elgoibar, donde confluyen el acceso a la AP-8, la existencia de la red de Euskotren y las interconexiones con otras cabeceras de áreas funcionales como son el Área Funcional de Azpeitia (Urola Kosta), GI-2634, y el Área Funcional de Gernika-Markina, GI/BI 2636. Conocedores como somos de nuestro territorio municipal, se propone esta sugerencia por considerarlo factible físicamente e intermodal con otros medios de transporte que se quieren fomentar a nivel territorial, como son las vías ciclables, ecobulevares y transporte público (viario y ferroviario).

2.- HIRI HABITATA: Hiria eraberritzea eta biziberritzea.

Hiri habitatari buruzko atalean jasotzen denaren arabera, Ermuko, Eibarko, Elgoibarko eta Soraluzeko nukleoaren artean eratu den Debabarreneko erdigunearen ezaugarriak ondokoak dira: hiri dentsitate altua eta industria espezialitate handia.

Ardatz hau antolatzeko, besteak beste, ondorengo gidalerroak proposatzen dira:

“Hiriguneak biziberritzeko eta arintzeko, eta halaber, hirigune historikoak guztiz eraberritzeko jarduerak lehenestea; horretarako, urbanizatutako perimetroan sartuta dauden eta okupatu gabe dauden lurzoruak berrerabiliko dira, lurzoru berriak okupatzeko alternatiba gisa”.

2.- HABITAT URBANO: Rehabilitación y regeneración urbana.

Según se recoge en el apartado dedicado al hábitat urbano, el espacio central de Debabarrena conformado entorno a los núcleos de Ermua, Eibar, Elgoibar y Soraluze, constituye un espacio caracterizado por su alta densidad urbana y su fuerte especialización industrial.

Dentro de las directrices que se plantean para la ordenación de este Eje son, entre otras:

“Priorizar las actuaciones de regeneración y descongestión de los núcleos urbanos y la rehabilitación integrada de los cascos históricos, reutilizando los suelos desocupados ya incluidos en el perímetro urbanizado, como alternativa a la ocupación de nuevos suelos”.



Esku artean daukagun Eremu Funtzionalaren, eta hain zuzen ere, Elgoibarko udalerrriaren errealitate fisikoari dagokionez, esan, hainbat gune daudela, Eusko Jaurlaritzak Birgaitze Integratuko Eremu izendatu dituenak, eta guztira, 221 etxebizitzari eragiten diotenak. Bestalde, "EAEn eraikitako parkea berritzerako orduan dauden Esku-hartze Premiei buruzko Diagnostika (2011)" kontuan izanik, Elgoibarren lehentasunez birgaitu behar diren eremuak hiru gehiago dira; eta Eremu Funtzional osoan birgaitu beharreko eremuak, berriz, 20 dira. Dena dela, ez dira kontuan izan zaharkituta dauden edota erabiltzen ez diren industria instalazioek okupatutako lurzorua. Horiek hiria biziberritzeko eta eraberritzeko gune garrantzitsuak dira, hiriaren hazkundera mugatuko bada.

Aurrerakinean ageri den dokumentazio guztia azterturik, antzeman da ez direla Eibarko Eremu Funtzionalean (Debabarrena) hiria eraberritzeko guneak identifikatu, eta garrantzitsua da arlo hau azpimarratzea.

Idatzi hau, bertan jasotako iradokizunak egiteko, garaiz eta eran aurkeztu dela kontuan izanik, iradokizun horiek onartzeko eta EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak Berrikusteko eskaera egiten da.

La realidad física del Área Funcional que nos ocupa y de Elgoibar, en concreto, es que existen varias Áreas de Rehabilitación Integrada (ARIs) declarados por el Gobierno Vasco y que afectan a un total de 221 viviendas. Si tenemos en cuenta el "Diagnostico de las Necesidades de Intervención en la renovación del parque edificado de la CAPV (2011)" el número de áreas prioritarias de regeneración en Elgoibar ascienden a tres más, mientras que en el conjunto del Área Funcional ascienden a 20. Todo ello sin tener en cuenta los suelos ocupados por instalaciones industriales ya obsoletas y/o en desuso, que suponen un importante espacio de regeneración y rehabilitación urbana en pro de delimitar el crecimiento urbano.

Del conjunto de la documentación del Avance, se aprecia la falta de identificación de las áreas de renovación urbana en el conjunto del Área Funcional de Eibar (Deba-Barrena), considerándose de interés incidir en este aspecto.

Teniendo por presentado en plazo y forma el presente escrito, para hacer las sugerencias en él contenidas, se solicitan las acepten y las incorporen en el documento de Revisión de las Directrices de Ordenación Territorial del CAPV.

Elgoibar, 2017ko maiatzaren 25a - 25 de mayo de 2017.



ALKATEA

Sin. Ane Beitia Arriola

EUSKO JAURLARITZA

Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Saila